



OIARTZUNGO UDALA

UDALEKU IREKIAK 2006

BEGIRALEEK ETA ZUZENDARIEK IZENA EMATEKO DEIALDIA

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udarako Udalak udaleku irekiak antolatu ditu uztailan zehar Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat.

Honen bitartez **begirale** edota **begiraleen zuzendari-koordinatzaile** bezala lan egin nahi duten gazteei izena ematera Udaletxeko Informazio Bulegora jo beharko dutela jakinerazten zaie.

Begiraleak eta koordinatzaileak hautatzeko kontutan hartuko diren **irizpideak**, Gazteria eta Kirol Batzordeak proposatu duen baremazioaren arabera, honakoak dira: euskara maila, aisialdiko tituluaren jabe izan, jarduera honekin lotuta ikasketak eta esperientzia edukitzea eta gai hauetan espezializazio-ikastaroak eginak izatea.

Zuzendari edo koordinatzaileen kasuan, beren zereginen berezitasunak kontuan hartuta, **soldatari gehigarri bat erantsiko zaio**.

Kasu guztietan euskara ongi jakitea ezinbestekoa izango da. Eskatzaileek adierazten dituzten **merezimendu guztiak fotokopien bidez frogatu beharko dituzte**, eta fotokopien bidez frogatzen ez direnak ez dira meritu gisa kontuan hartuko.

OHARRAK:

1. Begiraleen eta zuzendarien lan ordutegia 9.00etatik 14.00ak arte izango da uztailak 1etik 31a arte.
2. Ekaineko azken egunetan (21-30), plangintza prestatzeko, arratsaldeko 4-6ak bitartean libre egon beharko dute begiraleek. Prestaketarako 15 orduko disponibilitatea eskatzen da eta saioen %80ko asistentzia maila eskatuko da.
3. Izena emateko epea: **martxoaren 6tik 22ra bitartean**, Udaletxeko Informazio Bulegoan.
4. Epez kanpo sartutako lan-eskaerarik ez da onartuko.
5. Merzimendu guztiak eskaerarekin batera aurkeztu eta frogatu behar dira (*fotokopiak*). Bestela ez dira kontuan hartuko.

Oiartzun, 2006ko otsailaren 28a
GAZTERIA TEKNIKARIA